


Arantzartek Abenduko Jantza Topaketak antolatu ditu

12. orrialdea

Itziar Zabala Euskadiko txapelduna

Euskal Mendizale Federazioaren Kirol Eskalada Txapelketako hiru probak, azkartasuna, boulder eta zailtasuna irabazi dauz Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrek, Euskadiko Txapela lortuz. Lesinoak atzean itxita sasoi betean dago Zabala. 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetan eskaladea egongo da hiru proba horreez. **11. orrialdea**



Ghero. Azken euskalduna antzezlan Igorreko Lasarte Aretoan

13. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

307

2018ko abenduaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Abenduak 3, Euskerearen Eguna

Euskerearen Eguna amaierea emongo deutso Euskaraldiari. Hamaika egun honeen ostean, Areatzan, Bedian, Diman, Lemoan eta Zeanurin amaiera ekitaldiak egingo ditue arratiarrak.

Helburua da jenteari akordau arazotea hartutako hizkuntza ohitura barriak mantentzen egin behar dirala Euskaraldia moduko ariketak bailagarriak izan daitezzen. Jaigiroan egingo dira, kantu, jantza eta jatekoagaz lagunduta.

Artean eta Zeberion, Euskaraldian parte hartu daben arren, ez dabe amaiera ekitaldirik egingo. Ha-ta

guzti be, ospatuko dabe eguna eskolan egingo dabezan jarduerakaz.

Arantzazuk barriz, ez dau izena emon Euskaraldian, baina Uemagaz batera, hainbat jarduera antolatu ditu hizkuntz ohituretan eragiteko. Euskerearen Egunean, horren gainean hausnartzeko, ume eta nagusientzako tailerra antolatu dabe.

8. eta 9. orrialdeak



ARTEA

Bizkaiko Eskola Txikietako irakasleak topaketea egin eben

Bizkaia osoko Eskola Txikietako 60 maisu-maistra inguruk irakurketaz, idazketaz eta idatz sistemaren psikogenesiaren inguruko formazioa jaso eben zemendian Arteko eskolan, Elena Laizen gidaritzapean. Artea, Areatza eta Zeberioko eskolak eskola txikiak dira. Ez da tamainu kontua bakarrik, edade aniztasuna daukie euren geletan eta maisu-maistren irakasteko modua desbardina izaten da. **7. orrialdea**

IGORRE

Igorreko Ziklo-krosa abenduaren 9an izango da

Antolakuntzaren errelebo eza eta finantziatzeko zailtasunak dirala-eta, aurtan Igorreko Ziklo-krosa lasterketa nazionala izango da eta ez nazionala, aurreko 40 urteetan izan dan moduan. Goizeko hamaretan hasiko dira Kadeteak, neskek eta mutilak; 11:00etan, Juniorrak eta andrazkoen Opena eta 12:00etan, Elite eta 23 Urte Azpiko Gizonetakoak neurtuko dira. **10. orrialdea**

ARRATIA

Gure sua lanak irabazi dau Arratiako Beldur Barik saria

Bideoan Igorreko Maria Atutxak *Gure sua* abestia kantetan dau, eguneroko matxismoari beldur barik eta indarrez erantzuteko deia eginaz. Aktore lanetan Andoni Vazquez Artekoa agertzen da.

Arratiako Udalen Mankomunitateak emoten ditu eskualdeko Beldur Barik sariak. Sari banaketea zemendiaren 23an izan zan eta bertan parte hartu daben bideo guztiak proiektatu ziran. Aurtan, bost izan dira. Danak 12 eta 17 urte bitarteko kategorian. Areatzako, *Txoko morea*; Bediako, *Petalo alaiak*; Dimako *Niri bai, eta zuri?* eta Lemoako *Lemoako Gazteleku*a izan ziran Arratian Igorreko *Gure sua* lanagaz lehiatu ziran beste bideoak. **7. orrialdea**

P TRAINER

Jar zaitez forman 45 minututan.
2 saio astean.
Utzi aitzakiak alde batera!

615724388 info@ptrainer.es
Lehendakari Agirre, 5 48140 Igorre

De gure eskarri...

ZAZPI HAZIETARA

Euskal Herri Osoko Eguneroko Jakiak
Euskal Jantziak
Bertoko Artisau eta Sortzaileen Lanak
Gabon zoriontsuak opa deusueguz!

Agirre Lehendakaria 11, Igorre
94 631 92 43
zazpihazietara.ariatara@gmail.com
facebook.com/zazpihazietara.ariatara/
instagram @zazpi_hazietara

Literatura txokoa

MEMORIAS DEL CALABOZO

Zemendiaren 20an, *La noche de 12 años* filmaren aurrestreinaldira joateko aukera izan genduan, Iruñara. *Memorias del calabozo* pelikulea Txalapartak 93. urtean editatutako liburuan oinarrituta dago, eta Pepe Mugica, Mauricio Rosencof eta Eleuterio Fernandez Huidobro Uruguayko Tupamaroseko militanteen kartzelaldia kontetan dau. Beraz, filmak eroan gaitu liburura, baina aldrebeseko bidea egitea proposatuko geunke.

Uruguayn 1973an MLNko 9 militante kartzelutako zeldetatik ezkutan atera eta isolamentuan eta torturapean euki ebezan 12 urte luzez. Pelikulea gogorra da, baina era berean pertsonen eta militantzien onena be erakusten

deusku. Krudeltasunaren aurrean indarra, ignorantziaren aurrean kontzientzia, basakeriaren aurrean duintasuna eta gorrotoaren aurrean maitasuna erakusten dabe MLNko militanteak. Egun, oindino, Pepe Mugica lango pentasariaren dikursoak uleak puntan ipinten deuskuez.

Liburua Rosencof-ek eta Huidobro-ek idatzitako da. Kontetan dabe zelan salbau eben euren gizatasuna, bizitzeari helduta "gordioa harriari moduan", gauza bihurtu eta zoratu gura ebazan sistema baten kontra eginaz.

Uruguayn pasau arren, Euskal Herrian zoritxarrez hurbil sentiduten doguz tortura, isolamentu eta kartzelaldiari buruzko konta-

kizunak. Uruguayn memoria erre-kuperau eta nazino askapenean egondako burkideai gorazarre egitea lortu da. Euskal Herrian, oster, gure lana da hori idaztea. Horregaitik, "Orain presoak".

Amaituteko, Eduardo Galeanok liburuaren hitzaurrean idatzitako berba batzuk ekarri gura geunke: "Mauricio eta El Natak hormaren alde banatan izandako alkarrizketak ez dau preso politikoen duintasuna eta zuhurtzia bakarrik adierazoten, alkarrizketa zoragarri hau sistemearen porrotaren sinboloa da, Uruguay osoa gormutuen herrialde bihurtu gura eban sistemearen porrota, alegia".

Itsaso Angoitia Bernaola
Jon Andoni Perez Bilbao

Mauricio Rosencof eta Eleuterio Fernandez Huidobro

Memorias del calabozo

Txalaparta, 1993. Bigarren edizioa 2017

402 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 3tik 9ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 10etik 16ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidada: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tirada: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Margoketa matxistak

Igaztik hona hirugarrenez margoketa antifeministak agertu dira Arratian. 2017an Lemoako eskolan dagoan Beldur Barik-eko mural baten gainean izan ziran, 2018ko martian Igorreko Arratia Institutuan martiaren 8ko pankarta baten gainean, eta asteon Zea-nuriko Zulaibar eskolan eta Zea-nuriko Beldur Barik-en margoketa baten gainean.

Margoketa guztiak izan dabe hizpide mobimentu feministea desitxuratzeko, baina ez hori bakarrik, indarkeria matxistaren biktimen kontrako eraso zuzena izan da oingoa, euren testigantzak guzur moduan aldarrikatuz.

Sistema patriarkalak emoten deusa(e)zan pribilegioen jabe goan sinisten dauan(daben) gizona(k) izango dogu(z) margoketa horreen atzean, garaipen feministen aurrean erasotua(k) sentiduten d(ir)ana(k), pribilegioak galtzeako arriskuaren aurrean urduri, bildurtuta.

Margoketa horreen egileari/egileai, zein margoketa horreen aurrean barre, oneretxi zein paso egin dauanari (beraz konplize izan danari) hurrengo argitu gura deusagu:

- Indarkeria matxistak 8 andra eta adin txikiko bat hil ditu 2018an

Euskal Herrian, bikote edo bikote-kide ohiaren eskuetan. Euretako batek salatu eta urruntze agindua eskatu baeban be, ez eutsien onartu, Maguet-en testigantzeari eta arrisku egoereari garrantzia kenduz (zu(e)k aldarrikatzen dozu(e)n moduan). Kasu honeek ez dira isolatuak-indibidualak, estrukturalak baino, giza eskubideen urraketak dira.

- Ez da feminismoa biktima bihurtzen gaituana, indarkeria matxistea baino. Eta biktima gura gaituzuen arren, feminismoak poderetu egiten gaitu: egokitu jakun roletik kanpo andra burujabe bihurtzen gaitu eta kalean bizirik eta askeak izateko behar dogun babesa emoten deusku.

Beraz, zuen argumentuak faltsuak dirala eta gure burrukea zilegia/justua dala argi daukagu, eta ez gara horretarako margoketa batzuen atzean ostondu behar. Arratiako andra talde zein talde feministako kideak eraso bat dagoan baxotxean kalera urtetzen jarraituko dogu, kaleak gureak diralako. Bertan aurkituko gaituzue.

Inoz eraso matxistarik sufridu dozun horri eta margoketa honen ondorioz beste behin be biktima sentidu zaran horri: guk sinisten zaitugu!

Gora borroka feminista!

**ARRATIAKO ANDRA TALDEAK
ETA MOBIMENTU FEMINISTEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Begiargi



Koloreak euskeraz ez datoz guztiz bat gaztelaniazkoakaz. Personen eta animalien begien kolorea adierazoteko, esate baterako, ez dira urdin, gris edo berde berbak erabilten. Berba horreen orde begiargi esaten da (begiargie edo begiargie, ahoskatuta). Gure tradizio zaharreen eta adinakoen artean, bereizketa holantxe da: begizuri edo begiargi (begi urdinak, grisak eta berdeak), begi nabar (marroiak) eta begi baltz. Begigorri, barriz, zera da: begi ingurua, berez edo gaixotasunagaitik, gorrituta daukana.

ERETXIA

Aurreretxiak ete dagoz lan munduan?

Oin dala gitxi, lagun handi batek deitu eustan esateko erantzukizun handiko lanpostu bat eskaini eutsela enpresa sano ezagun baten. Barriak poztu ninduan, gizon hau ona da bere lanean eta merezidu dau lanpostua. Baina, berari entzuten nengoala, itaun bat egin neutsan neure buruari: aurreretxiak ete dagoz lan munduan?

Akaso, apur bat zehatzagoa izan behar naz burura etorri jatan argitzeko. Atzen finean lan mundua oso zabala da eta ez da erraza jeneralizatea. Eta gainera, ez litzateke benetako izango. Persona batzuei aurreretxi batzuk bururatuko jakiez eta beste batzuei beste batzuk. Nik neuk be, hotzean, migratzaile, kartzelan egondako jentea eta baztertutako beste kolektiboetako jentearengan pentsaiko neuke.

Beraz, zehaztu behar dot eta egiteko modu bakarra nazararen gainean berba eginda da:

Bide, ubide eta portuetako ingeniaria naz, andrazkoa, 48 urtekoa eta Burgosen jaiotakoa. Horixe da nire lan deskribapena, nahiz eta beti ez izan ordena horretan.

Errekrutatzaile batzuentzat lehenengotik andrazkoa izan naz eta naz. Jakinaren gainean nago inoz ez deustela, nire lankideari moduan, erantzukizun lanpostu batzuk eskainiko eta hau estrategia kontu bat dala.

Lanpostu horreetan, poderea daukien personakazko hartu-emonak egiten dira eta konfiantzazko hartu-emonak sortzean ahalegintzen dira, bardinen artekoak, eta lortzeako bardintzat hartu behar zaitue. Gatxa da zu andrazkoa zaranean, eta poderean dagozanak, gizonak. Badakit jakin, gaur egun poderea daukien andrazkoak dagozala eta enpresa edo erakunderen baten buruzagiak dirala. Baina egitate honek ez dau atzera botaten lehen esan dodana. Horretarako nahikoa da guk bileretako



MAITE MOLERO
Ingeniaria

argazkiak begiratzea, ez da bakarrik andrazkoen kopurua txikia dala, *rara avis* baten moduan nabarmentzen dirala baino.

Ez naz jausiko kritika errazean esanez andrazko honei egiten jakiezan alkarrizketetan hedabideak erdian ipinten dabela zelan lortzean daben familia konziliazinoa, edo paternalismo dariola, horraino heldu dan lehenengo andrazkoa dalako zoriondu egiten dituela. Egia dan arren, ez dot kritika hori egin gura.

Nire ustez, andrazko horreek lanpostu horreetara helduteak funtzino bat beteten dau sano egokia dan persona bateri lanpostua eskaintzetik harago. Beste andrazkooi erakusten deusku andrazko batek lortu ahal dauala holango lanpostua eta zu edo beste andra bat ez bazagozie hor, ez dozuelako merezidu da. Sistemea ez da injustua, ez dago aukera desbardintasunik, gertatzen dana da zu ez zarala nahiko ona. Duda barik, ezarritako ordena mantentuteko modu trebea eta segurua da hori.

Edadeari jagokonean ba, nagusia naz. Bitxia bada be, ni neu be konbenziduta nago nire edade,

formazino eta esperientzako gizon bat aurkeztuko baleuste, lan munduan momenturik onenean dagoan profesionala ikusiko nebala, energia eta jakintza teoriko eta praktikoa bateratzen dauan pertsona. Baina neure buruarengan pentsetan badot, hautaketa prozesuak erakusten dabena ikusten dot, gainbeheraren hasikerea.

Iraganean, nazinoarteko lantaldeetan egin dot behar eta hegoaldeko herrialde batetakoak sortzean deutsien mesfidantzea topau dot. Europakoa bai, baina Europako hegoaldekoa, jentek siestea egin eta oporretan eta jaietan bakarrik pentsetan dauan herrialde batekoa. Gustauko litzakit esatea, alkarregaz lanean hasitakoan aurreretxiak desagertu egiten dirala eta danok alkar ezteuteaz oso pozik egoten garala, baina susmoa daukat, hori ez litzatekela egia osoa izango.

Gaur egun lan egiten dodan enpresan ezin naz keju aurreretxiak dirala-eta, baina nire lan karrerari beste norabide bat emon gura izan deusadanean, lehen esandako guztiakaz egin dot topo muturrez.

Leitekene da nire lankideetako batzuk, gizonetakoak, harritura geratzea egin dodan adierazpen honengaitik. Pribilejiodunen parte zaranean, gatxa izaten da beste errealidade batzuen jakitun izatea. Neuri be holan gertatzen jata beste persona batzuek neure gizarte maila edo azalaren koloreagaitik aurre egiten deustenean. Nire pribilejioak sistema injustu baten parte dirala eta injustizia horrek nire alde egiten dauala errekonoziduteak erresistentziak sortzean deustaz.

Aurreretxiak bigarren azal baten modura daroaguz itsatsita. Bere burua defendiduten dauan sistemeak eta guk geure pribilejioak babesteko kontuan hartuz, kontuz ehunduta. Horregaitik akaso, titulu itauna aldatu beharko litzateke eta galdetu, kapaz izango gara geure pribilejioai aurre egiteko? Geure aurreretxiak baztertze eta ez bakarrik lan munduan, bizi gaur munduan baino?

***Erredakzinoan itzulita**

LUMATUTEN



JOSU BASOZABAL

Kapitain Handiaren kontuak

Hogei urte luze dira Herri-Kontuen Euskal Epaitegian nire lan ibilbidea amaitu nebala. Hango Idazkari Nagusia izan nintzan. Lan errazoiakaitik beste kontu autonomikoetako epaitegi edo ganbare-tako lankideakaz bilerak egiteko nonora joaten nintzan bakotxean, beti urteten ziran, Kapitain Handiaren kontu xebleak.

Gonzalo Fernandez de Córdoba, Kapitain Handia, Fernando Errege Katolikoaren aginduetara egoan merzenarioa izan zan eta berarentzat burruka egin eta Napoliko erresumea lortu eban.

Balentria horreetan gastetan eban dirutzea ikusita, Erregeak kontuak eskatzeko ausardia izan eban. Militarra bete-betean harapatuta eta militarrena hain euren dan harrokeriaz erantzun eutsan Erregeari, historiara Kapitain Handiaren Kontuak lez, pasau diran berbakaz:

Cien millones de ducados en picos, palas y azadones para enterrar a los muertos del enemigo. Ciento cincuenta mil ducados en frailes, monjas y pobres, para que rogasen a Dios por las almas de los soldados del rey caídos en combate. Cien mil ducados en guantes perfumados, para preservar a las tropas del hedor de los cadáveres del enemigo. Ciento sesenta mil ducados para reponer y arreglar las campanas destruidas de tanto repicar a victoria. Finalmente, por la paciencia al haber escuchado estas pequeñeces del rey, que pide cuentas a quien le ha regalado un reino, cien millones de ducados.

Zentzubakokeria handia izan arren, Francoren erregimenak ahanzturatik erreskatau eban eta Eskola Nazionallean, eredutzat ipinten euskuen Viriato, Indibil eta Mandonio, Guzman "Ona" eta Moscardo koronelagaz batera.

Sei hilabete barru Udal Hauteskundeak izango dira eta karpetak zarratu eta kontuak prestatu eta emoteko ordua heldu da. Zelan sartu zan bakotxa eta zelan urtengo dan azaldutekoa. Zer agindu zenduan eta zer egin dozun esatekoa. Hori guztia, herritarrek errespetau eta gardena izateko asmo zintzoagaz.

Alderdi politiko edo hauteskundeetarako talde guztiak, hauteskunde kanpainetan gestino ona, gardentasuna, partaidetzea eta abar agintzen dabe eta bere aurkariak arpegiratzen deutseez.

Ba, momentua heldu da eta, mesedez, ez erantzun Kapitain Handiak legez.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO



BEGI TXINDORRA

Ontzu burura jatortan intentzio txarrenagaz, mendi parte honetatik zeozter egiteko asmoa. Ez dakigu zertarako, ez dakigu norentzako baina etorri gara. Gugandik zugana Arratietik rock & rolla. Lokal zulo barrenetik ideia handirik barik, sentsazio ustel honek forma hartu leike beraz. Eta etorri gara, baina... Gugandik zugana Arratietik rock & rolla".

Mosu handi bat Kiñu Gaztetxeko kontzertura hurrerututako guztiai!

Eskean Kristö



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilakala
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 101
R.P.S. 31/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

DIMA

"Beinke guk be in geinke" jai solidarioa Dimatik Arratiara zabaldu gura dabe

Erredakzioa

Familia askori umeen gaixotasunak bizitza baldintzatzen deusela ikusita, Jose Martin Bustintza "Tubi" Lasto Botatze eta Lasto Jasotze txapeldun handiak, Ibon Iza Dimako ekintzaileari komentau eutsan, jente asko dagoala preminan eta zoezer egin behar ebela. "Beinke!" izan zan Izaren erantzuna eta hola, 2015ean egin eben Beinke guk be in geinke, lehenengo jai solidarioa. Aurten be, abenduaren 29an, Gure Señeak eta Karenka alkarteai lagunduteko, herri kirolak, musikea eta herri afaria ardatz dituan jai antolatuko dabe. Oingoan, Arratiako beste herrietako jenteak be hartuko dau parte herri kirol desafioan zein kantuan; izan be, jai solidarioa Arratia osora zabaldu gura dabela esan eban Ibon Iza antolatzaileak jentaurreko aurkezpenan.

Beinke jai arrastiko lauretan hasiko da frontoian. Dimesten alkarteak arpegiak pintauko deutseez umeai eta photocall-a egongo da. Herri kirol desafioa 17:00etan hasiko da eta Areatza, Dima eta Zeanuri neurtuko dira. "Zortzi personak osotuko dabe talde bakotxa, lau andra eta lau gizon egongo dira talde bakotxean, eta azkoran, trontzan eta harria altxatu" egin beharko dabe partaideak. Ondoren, musika emonaldiak hasiko dira. Beinke kantuan deitu daben honetan, Arratia eta Arratiatik kanpoko artisten kolaborazioa izango dabe. Mikel Azagirre, Gazte Barri



jantza taldea, Dantzari finak, Kepa Intxausti eta Jabi Olibares bertso-lariak, Arratiako Musika Eskolako umeak, Bihotz Gorospe, Ander Gorospe, Juanma Labandibar, David Houston, Olatz eta Esti, Juantxu Urkiaga, Arantzarte, Xabier Saldias, Bieskas bikote akustikoa, Bilboko Udal Txistulari Banda eta EinGo Kantan ta Dantzan taldea izatekoak dira bertan. Sarrereak 10 euroko prezioa izango dau nagusientzat eta 5 eurokoa umeentzat. Ondoren, 21:30ean, herri afaria. Honek be 10 euroko prezioa izango dau.

Gure Señeak eta Karenka

Batutako dirua Gure Señeak eta Karenka alkarteentzako izango da. Gure Señeak Derioko gaixotasun arraroak daukiezan umeen aldeko alkarte da. Familia horreek laguntza barik eta bakardadean ez ixteko egiten dau behar. Karenka, desgaitasun fisiko edo funtzionalen bat daukien seme-alaben gurasoak sortutako Ondarroako alkarte da. Euren seme-alaben inklusibidatea bilatzen dabe.

ZEANURI

Lurzoruaren erabilerarako ordenantzea aldatzea gura dau Eguzkiola Kultur Elkarteak

Erispide objetiboen faltea dagoala eta horrek alkarteai tratu desbardina emotea ahalbideratzen dauala salatu dau Eguzkiola alkarteak. Urri bigarrenaren 26an, *Sorginen gaua* baimen barik espazio publikoan ospatzeagaitik, alkarteko kide biren espediente zigortzaileari hasikerea emotea ebatzi dau Udalak.

Erredakzioa

Eguzkiola alkartekoak, *Sorginen gaua* antolatzeko erabiliko eben espazioa azalduten eta konbitea luzatuten, idatzia aurkeztu eben udalean. "Hamabost egun lehenago beste alkarte batek egin eban idatzia kopiau genduan" dino Gotzon Idirin Eguzkiolakoak eta hareek "ez eben baimenik eskatu behar izan eta guri ez eskatuteagaitik, espediente zigortzailea zabaldu deuskue".

Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkatearen esanetan, legez espazio publikoa erabilteko baimena izan behar dan arren, jenteak zelan edo halan jakinarazo eta "emon izan da beti, arazo barik. Baina, denpora batetik hona, "ezer esan barik erabilteko ohi-turea hartu zan eta egin genduan ordenantza bat, baimena zelan eskatu behar zan" jasoten ebana. *Sorginen gaua* dala eta, Eguzkiolak bialdutako idatzia jaso ostean, baimena eskatu behar ebela esan eutsen alkateak. Aurreko ekitaldia, duatloia izan zan, eta udaletxearen baimena eukan, baina dokumentu ofizialik ez. "Eta kasualidadea, batek istripu bat euki eban eta eskatu eutseen antolatzaileai udal bai-



70 lagun batu ziran Eguzkiolako kide biren kontra, Zeanuriko Udalak espediente zigortzailea martxan ipini dauala salatuteko konzentrazioan.

mena. Konpondu genduan: aste-lehenan lehenengo orduan egin genduan dokumentua, barikuko fetxeagaz". Orditik aurrera, beti baimena idatziz eta modu ofizialean emotea ebatzi ebela dino alkateak.

Sorginen gauatik harago

Eguzkiola alkartekoak, *Sorginen gaua*rekin gertatutakoa icebergaren puntea baino ez dala uste dabe. Lurzoru publikoaren erabilereta eta okupazioa gauza desbardinak dirala dino eta bigarreneko baimena behar izatea

normal ikusten daben arren, uste dabe erabilteko ez litzatekela baimenik behar. "Plazan jantzan egiteko baimena behar dot? Eta olgetako? Zenbat persona batu behar dira baimena eskatu behar izateko?". Gainera, diru laguntzak emoteko erispide objektiborik ez dagoala eta udal lokalak be erispide argi barik ixten dirala dino.

Horren inguruko hausnarretea bultzatu gura dabe Eguzkiolakoak beste alkarteakaz batera eta herriko beste hainbat alkartegaz batzarra egin dabe gaia tratetako.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

ARRATIA

Andrazko bilakatzeko prozesua aztertuko dau Kattalin Minerrek

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen programazioaren barruan, abenduaren 14 eta 15ean, Kattalin Minerren eskutik, *Nola egiten gaituzte andrazko* ikastaroa dago programata. Ikastaroa Arteako Andran Gelan izango da.

Ikastaroak saio bi izango ditu. Lehenengoa, barikuan, hilak 14 izango da, 17:00etatik 20:00etara eta bigarrena zapatuan 10:00etatik 13:00etara. Izena emoteko atzen eguna hilaren 7a da.

Partaideak andra izateko prozesua aztertuko dabe. "Jaiotze aurretik andrazko egiten gaituzte makinaria martxan hasten da. Baina zelan egiten gaitue andrazko? Zer da andra izatea? Gure identitatea eta gorputza prozesu baten emaitza da, ikasitakoa. Naturalizat jotzen doguna

eraikuntza soziala bada, zelan identifikatu?" Itaun honeei erantzuteko aukerea izango dabe partaideak.

Minerrek *Nola heldu naiz ni honaino* nobelea argitaratu eban igaz.



ARRATIA

Kongo eta Peruko proiektuakazko tonbolea

Erredakzioa

Dozena bat urte daroaz Igorreko Gabonetako tonbola solidarioak, Maribel Egiluz Kongon eta Juanita Agirre Perun behar egiten daben Igorreko misinolarien proiektuak lagunduteko dirua batzean. Aurten be tonboleak, abenduaren 13tik 16ra arte zabalduko ditu atek.

Euro baten txartela erosita, Igorreko misinolarien proiektuak lagunduteaz gainera, sari bat eskuratu daiteke era bitan: txartela saritua suertatu dalako, edo atzenengoa egunean, sarituta ez dagozan txartel guztien artean egingo dan zozketan. Lehenengo kasuan,

oparia eskuz egindako amantal, manta edo baserriar jantzia izan daiteke, besteak beste. Atzenengoa egunean barriz, otzara bat zozketatuko da.

Tonbolea, Dimako autobus gureleku parean dagoan lokalean dago, Sabino Arana 1 zenbakian.



IGORRE

Andere Ortuzar izango da Igorreko EAJ-PNVren alkategaia

Erredakzioa

Igorreko EAJ-PNVk Andere Ortuzar Uribe aukeratu dau talde jeltzaleak maiatzaren 26ko Udal Hauteskundeetan aurkeztuko dauan zerrendaburu izan daiten.

Ortuzarrek ibilbide luzea egin dau udal politikan. Izan be, oingo agintaldia amaitzean 16 urte beteko ditu Udalean. Lehen zor-

tzi urteak gobernu taldean emon ebazan, lehenengo Gizarte Ekin-tza zinegotzi lanetan eta ondoren Kultura gaietarako zinegotzi arduradun gisa. Oposizioan emon dituan atzen 8 urteotan, EAJ-PNVren bozeroale jardun dau.

Ortuzarren ustez, oin lantaldeagaz batera aurre egin beharko deutsan eronkea ez da erraza. "Herritargoa erakarteko gai

izan behar dogu, eta herrikideai erakutsi EAJ-PNVk Igorrerentzako daukan proiektua onena dala; gogotsu gagoz gogor ekiteko" dino hautagaiak. Hurrengo urteai begira barriz, "jarduera bereziak jarriko doguz abian herriko industria bizibarrizteko eta gure udalerrian jarduera ekonomikoa hazi arazoteko. Urteak daroaguz geldituta, eta lehentasunetako bat da guretzat" dino. "Herriaren irudia hobetutea", gazteentzako eskaintza kulturala handitzea eta kirola praktiketako leku eskaintzea handitzea dira jeltzalearen beste eronka batzuk.

DIMA

Chrisallys alkarteak berbaldia emongo dau

Erredakzioa

Badira zakila duten neskek eta bulba duten mutilak izenpeko

berbaldia aurreikusita dago Bea Sever-en eskutik abenduaren 5ean, 18:00etan, Dimako Aba-roa Aretoan. Chrisallys haur transexualen familien alkarte da, familiarri arreta, aholkularitza eta formazioa emoteko sortutakoa.

Chrisallys Euskal Herria, 2015eko martian sortu zan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako 8 familiarren artean eta gaur 40 familia baino gehiagok osotuten dabe.

Uste baino jente gehiagok sentiduten dau jaiotzean egokitutako sexuagaz ez dauala bat egiten. Eusko Jaurlaritzaren *Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko gidaren* datuen arabera, "100.000 biztanleko, 6,8 andra transexualak dira, eta 2,6 gizon transexualak". Eta Chrisallys Euskal Herria alkartearen arabera, transexualitate egoeran dagozan adingabeen tasa askoz handiagoa da.

Olaetxe
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

DIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotritzitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goiztiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

www.begitu.org
publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115
Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

M. Jose zure arropa
GALANTA
94 631 90 08
Bereziki zuontzat
Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
www.facecook.com/galanta.lenceria

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 82 - 906 864 618

Kili-Kili
Antzoa eta Puzkifurua
Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 63 61

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

Itxasne Atutxa
-Kiromasajea:
-Kontrakturak kentzeako masajea
-Kirol masajea (eskuak, hankak, lepoa)
-Masaje lasaigarria
-Zirkulaziorako masajea
-Zerbikaletarako masajea
-Harri beroakaz masajea
-Reiki
-Flores de Bach
-Reflexologia
Erdur energiak barritzatza
*Opari bonoak egiten dira
Elexalde 15 · Zeanuri · 685 711 520

LEMOA

Lemoan izango da 2019ko Gazte Topagunea

2017an Igorren egin zan moduan, Ernai eta Aitzina antolakundeak, Lemoan egingo dabe Gazte Topagunea 2019ko apirilaren 19tik 22ra, *Askatasun bulkadak independentziara* lelopean. Lemoa bilakatuko dabe Jarrairen sorreraren 40. urteurrena ospatzeko topaleku.



Erredakzioa

Lelo hori ipini deusie Gazte Topaguneari, "Bulkada berrien garaia da" ekimenari lotuta: "Gazteon garaia dalako, bulkada barriena". Gazteok "zerumuga argi" dabela dinoe, eta "bizi-bizirik" dagozala, "Mobimentu feministatik hasi eta euskalgintzara; prekariedadearen kontrako burruketatik hezkuntza propioaren aldeko dinamiketara; sexu askatasunaren aldeko burruketatik, preso, igeslari eta deportadu politikoen kaleratzera".

Antolatzaileen arabera, "lau egunez Lemoako herria aldarri, burruka, kolore, bizipoz eta doinu" beteko dabe gazteak. Eta, euren esanetan, aurtengo Gazte Topagunea "inozko bereziena eta ahaztezinena izango da". Horretarako, ez da faltako berbaldi, mahai-inguru, mintegi, formakuntza tailer, kirol eta aisialdirako eskaintzarik. "Ezta Euskal Herriko nahiz nazioarteko musika taldeez osotutako festival erraldoia be". Gainera, lehen aldiz, "auzolan egun bateratuak" be egingo ditue.

Gazte Topagunera joateko bonuak, Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Lemoako Karabie Gaztetxean dagoz salgai 45 euroko prezioan abenduaren 15era arte. Gero prezioak gora egingo dau.

"Bulkada berrien garaia da"

"Bulkada barriak heldu dira Arratiara be" dinoe Arratiako Emaikoak. Azken asteetan zehar gazte antolakuntzan ibilitako jentegaz hartu-emonetan ipini dira gazte antolakuntzakoak. "40 urtean zehar Euskal Herri sozialista eta feministaren aldeko konpromisoagaz beharrian ibilitako belaunaldi desbardinatoko hainbat lagun batu doguz. Indarrak batu eta marxan ipini gara" dinoe. Zemendiaren 30ean Igorreko Kultur Etxean emon eutsien "Bulkada berrien garaia da" dinamikeari hasikerea eta 65 persona hurreratu ziran aurkezpena. Abenduaren 14an izango dabe hurrengo zitea, "ezker abertzaleko gazte antolakundeetan militante izandako gazte, eta ez hain gazteak, batzeako asmoz" egingo daben afarian. Aurrerantzean, hainbat ekintza aurreikusten dabez Gazte Topagunera bitartean.

	mediku naturista	Zamako, 9 - 48960 Galdakao
	argaltzeko terapia	94 600 21 12 - 94 600 87 56
	kosmetika naturala	L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
	elikagai biologikoak	94 631 14 39
zelakoentzat elikagaiak		
estetiziana		

ARRATIA

Maria Atutxaren *Gure sua* lanak irabazi dau Arratiako Beldur Barik Lehiaketea

Erredakzioa

Aurten bost lan aurkeztu dira, danak 12 eta 17 urte arteko kategorian. Maria Atutxaren *Gure sua* bideoak irabazi dau saria Igorre ordezkaten. Bertan, gitarrea hartuta Maria Atutxak *Gure sua* izeneko kantua kantetan dau eta Andoni Vazquez arteztarrak aktore lanak egiten ditu. Sari banaketea zemendiaren 23an izan zan, bertan ez zan egon Maria Atutxa eta saria Andoni Vazquezek jaso eban.

Sari banaketa ekitaldian, Arratiako lehiaketan parte hartu dabezan beste lanak ikusteko aukerea egon zan. Areatzako, *Txoko morea*; Bediako, *Petalo alaiak*; Dimako *Niri bai, eta zuri?* eta Lemoako *Lemoako Gazteleku*a izan ziran Arratian Igorreko *Gure sua* lanagaz

lehiatu ziran beste bideoak.

Antzerkia

Ismael Pereirak aurkeztu eban sari banaketa ekitaldia. Bideoen artean, Igorreko *Zugan Ni* programako antzerki talde batekoak sketch

moduko pieza txikiak antzeztu ebezan. *Zugan Ni* programaren barruan talde bi dagoz, astelehenetan gazteenak batzean dira eta barikuetan nagusiak. Gazteenak eskaini eben ikuskizuna Beldur Barik sari banaketearen ekitaldian.



Beldur Barik Lehiaketearen sari banaketea.

ARTEA

Eskola txikietako irakasleak Artean batu ziran idazteko ikas prozesua landuteko

Erredakzioa

Bizkaia osoko Eskola Txikietako 60 maisu-maistra inguruk irakurketaz, idazketaz eta idatz sistemearen psikogenesiaren inguruko formazioa jaso eben zemendian Arteko eskolan. Hiru saio izan ziran. Elena Laiz, jubila-du barri dan Zizurkilgo eskolako irakasleak gidatu ebazan saiook.

Formazio saioen helburua zan irakasleak erakustea umeak zelan bereganatuten daben idatz sistema; hau da, zelan ikasten daben irakurten eta idazten. "Ume baxotxa dago puntu baten eta baxotxari lagundu behar jako puntu horretatik aurrera" azaldu deutso BEGITURI Mari Asun Lizaso Arteko Eskolako zuzendariak. Gaia sano inportantea izan arren, ez dagoala oso zabaldua Irakasleen Eskoletan dino Lizasok eta horregaitik interes handia sortu eban Artean emondako formazioak. Bertan landutako idatz sistemearen psikogenesia, Piaget-egaz lan egin eben Emilia Ferreiro eta Ana Teberoskyren lanetan oinarrituten da.

Eskola Txikien sarea

Hilean behin, Zaratamoko Berritzegunean batzean dira Bizkaiko Eskola Txikietako zuzendari eta irakasleak. Bizkaian ez dago koordinatzailearik eta eurekaz Gipuzkoako

Eskola Txikietako koordinatzailea dan Mikel Goñi batzean da. Bizkaiko koordinatzaile baten eskareta aspaldi daukiela eginda dino Arteko Eskolako zuzendariak eta horretarako saretuta egon behar dira eta proiektu bat aurkeztu behar dabe eta hori prestatzen dabilzala dino.

Arteko Eskolea, Arratiako txikiena da eta 68 ikasle ditu. Areatza eta Zeberioko eskolak be Eskola Txikiak dira. Ez da tamainu kontua bakarrik; izan be, ezaugarri batzuk ditue eskola honeek. Holan, edade aniztasuna bultzatzen dabe eta landa eremuko tamainu txikiko eskolak dira. Edade aniztasunak, hau da, edade desbardinatoko umeak gela berean egoteak marketan dau

Eskola Txikietako maisu-maistren lan egiteko modua. "Edade aniztasuna ez dogu oztopotzat hartzean, aberasgarria da-eta. Gela guztietan dago aniztasuna, zorionez, baina gure geletan aniztasun horreek guztiak dagoz, gehi edade aniztasuna. Gelan, nagusiak irakasle moduan funtzionetan dabe eta baxotxari behar dauana emoten jako. Ez adinaren arabera" dino Esti Garcia ikasle buruak.

Ume guztiak desbardinak dira eta euren ikasteko moduak be bai. Izan be, Ferreiro eta Teberoskyren berbetan, "idazten dauan esku horren, begiratzen daben begi horren eta entzuten daben belarri horren atzean, pentsetan dauan ume bat dago".



Arteko Eskolea.

ABENDUAK 3. EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Euskerearen Egunak zarratuko dau Euskaraldia

Euskerearen Egunak zarratuko dau Euskaraldia, baina hamaika egun horreetan hartutako hizkuntz ohitura barriai eutsi beharko deutsee herritarrak ariketea baliogarria izan daiten. Hori ekarriko dabe gogora Euskera Eguneko hainbat ekitalditan. Areatzan, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin.



Lemoan egindako Berbodromoa.

Erredakzioa

Holan Areatzan, arrastiko seirak aldean, mezua irakurriko dabe eta argazkia egingo dabe plazan. Guraso alkartekoak txokolatea bananduko dabe. Bedian, Euskaraldiaren amaiera ekitaldia 19:00etan izango da frontoian eta aurretik Leloentzako Irudien Lehiaketako eta Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea egon-

go da.

Diman be frontoi txikian izango da ekitaldia. Seiretan hasiko da eta Ahobizi eta Belarripresten mezuen irakurketea, zunba, argazkia, gaztain erre jana eta zozketea egingo dabe.

Igorren be egingo dabe Euskaraldiaren amaierako ekitaldia. 19:00etan hasiko da eta bertan, bertsolariak, Luis Iruarizaga Abesbatzak, bideo emonaldiak,

sketchak, jantza aktiboko gazteak eta kopauak bermatuko dabe jaigiroa. Aurretik, kalejirea egingo dabe umeak eta helduak eskolatik Kultur Etxera, Zuztertxu, Belarriprest eta Ahobizigaz batera.

Lemoan be poteo musikatuaren ostean hasiko da Euskaraldiari amaierera emoteko ekitaldia. Jubiladuen tabernan izango da. Han, Udalak ariketeari jarraipena emoteko dituan bitartekoak azal-

dabe plazan.

Zeberion, euskal mitoak eta euskera gai hartuta, Juan Manuel Etxebarriak hainbat ipuin kontauko ditu eskolan. Eskolaumez gainera, familiak eta jubiladuak hurreratu daitezke kontakizunera. Aurretik, taloak egingo ditue eskolan umeak eta jubiladuak alkarregaz.

Arantzazun be hizkuntza ohi-turak aldatuten

Euskaraldian izena emon barik be, Arantzazun euskera sustatzeko eta hizkuntz ohi-turak aldatuteko ahalegina egiten dabiz eta Euskerearen Egunaren inguruko programeagaz egingo dabe hori. Uemagaz batera, zemen-diaren 26tik 30era, erakusketea egon zan udalerrri euskaldunen egoerea eta bilakaerea erakusteko.

Euskerearen egunean, umeak eta helduak hizkuntza ohi-turen inguruan hausnartzeko eta al-daketan eragiteko tailerra izango dabe 17:30ean, Kultur Gunean.

duko dabez, Berbalagun aurkezpena egin eta Larregi taldearen kontzertua egongo da.

Zeanurin ekitaldia egingo dabe Kultur Etxean, 18:30etik aurrera. Euskaraldiaren eboluzinoa azalduko dabe, photocall-ean argazkiak atera eta Maddalen Arzallusen agurra entzuteko aukerea egongo da. Ondoren, talo jana egongo da hurrez hurrez diran guztientzat.

Artea eta Zeberioko jarduerak

Euskerearen Eguna astebarruan dana lez, Artean eta Zeberion ez dabe Euskaraldiaren amaiera ekitaldirik egingo, baina eskolan euskerearen aldeko jarduerak egingo ditue, eta Artean, 18:30ean, txokolatea bananduko



Lemoa.



Igorren kantu poteoagaz emon jakon hasikerea Euskaraldiari.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



Euskaraldiaren aurkezpena Zeanurín.



Juan Manuel Etxebarriak, zemendiaren 30ean, Zeberriko udaletxean emon eban berbaldia.



Areatzako herri irakurketea.



Igorren

EUSKERAZ
bizizi
gura dogu

IGORREKO UDALA

MENDIA



Bizkaia Kopa Traileko azken etapea Diman

Erredakzioa

Abenduaren 16an, 09:00etan, hasiko da Diman Bizkaia Kopa Trail (BKT) mendi kirol ligako zortzigarren eta azken etapea. Laugarren aldia da Diman BKTko etapa bat egiten dana. Bizkaia Kopa Trail mendi kirol liga da. Martxea, Trail, MTB eta Txakur krosak osotuten dabe BKT. Martxea ez da lehiakorra eta besteak puntuetan dabez.

Mendi marxa bi dagoz aukeran, bata luzea, 20 kilometro eta bestea laburra, 10 kilometrokoa. Mendi marxako partaideak 09:00etan urtengo dira plazatik. Ordu erdi beranduago, 09:30ean, txakur krosa hasiko da; 09:45ean, trail luzea; 10:00etan, trail laburra eta 10:30ean, mendi bizikletea. Marxa laburrak, trail laburrak eta txakur krosak 10 kilometro inguruko ibilbidea daukie; marxa luzeak, trail luzeak eta mendi bizikletako probak, 20 kilometrokoa.

Izena online emon daiteke abenduaren 14ra arte, bizkaiakopatrail.com webgunean edo egunean ber-

tan 08:00retatik aurrera. Etapa egunean, prezioak igongo dira eta egun horretan izena emoten dabenak ez dabe oparirik jasoko. Txakurrentzako albaitari kontrola be 08:00retan hasiko da. BKTk Stop Sanfilippo Fundazioari lagunduten deuto.

Etaparen ostean, sari banaketea egongo da.

Azken etapea

Aurtengo edizinoako lehenengo probak Arrietan jokatu ziran martiaren 18an. Ondoren, Lemoiz, Morga, Loiu, Trapagaran, Zamudio eta Lekeition jokatu dira, eta atzena Diman izango da.

Zazpi proba jokatu ostean, bizikletan Zuriñe Frutos eta Javier Goitia Onaachevarria dira liderrak; txakur krolean, Virginia Aldama Cortina eta Ivan Herrera Perez, trail laburrean Begoña Uriarte Ibarrola eta Ekaitz Kortazar Zenikaonaindia, eta trail luzean, Lorena Guinaldo Mancebo eta Mikel Monasterio Asteintza.

BKTko sari banaketea Bilbon izango da urtailean.

ZIKLO-KROSA

Igorreko Ziklo-krosak maila nazionala izango dau aurten

Igorreko XLII. edizinoa, lehenengoa lez, lasterketa nazionala izango da eta ez nazinoartekoa, aurreko 40 urteetan izan dan moduan. Goizeko hamarretan hasiko dira Kadeteak, neskak eta mutilak; 11:00etan, Juniorrak eta andrazkoen Opena eta 12:00etan, Elite eta 23 Urte Azpiko Gizonezkoak neurtuko dira.

Erredakzioa

Ha-ta guzti be, lasterketa interesgarria eta ziklo-krosarien artean lehia estua izatea espero dabe Arratia Ziklista Elkarteak antolatzaileak.

Lehenengo urtekoa, 1976koa eta aurtengoa dirala maila nazionalen egindako bakarrak dino Juan

Mari Zurinaga AZEko presidentek "gainontzeko guztiak maila altuagokoak izan dira, nazinoartekoak". Mailaz bajatuteko errazoiaren artean, aurrekontu handia behar dala horretarako; Igorreko Udala salbu, erakundeen babes faltea eta antolakuntzan erreleborik eza, aitaten dau Zurinagak.

Ha-ta guzti be, zaleentzat lasterketa polita izango dalakoan dago. "Lehia handia egongo da eta gureak hemen egongo dira". Euskadi-Murias taldeko txirindulariak egongo dira, beraz. Batez be kaminoan lehiatzeko taldea izan arren, AZEkoak, Jon Intxausti eta Ander Barrenetxea, beste batzuen artean, Igorren izatea espero dabe.

Olabarriko zirkuitua

Olabarriko zirkuituan jokatu da Igorreko Ziklo-krosa. Zirkuitu hau Munduko Kopako lasterketak egiteko egin zan eta Igorrek Munduko Kopa egiteko moduko azpiegitura be badauka. Horregaitik, Euskal Herrian barriro be Munduko Kopako lasterketa bat egitekotan, Igorrek jarraituko dauala izaten lekuri aproposena uste dau Ander Gorospe AZEkoak.

FUTBOLA

Arratia eta Athleticen partidua jokatu eben Gurutze Gorriari lagunduteko

Erredakzioa

Arratiako Gurutze Gorriak bere proiektuak finantziari ahal izateko, Arratia eta Athletic klubetako talde beteranoak partidu bat jokatu eben Igorreko Urbieta zelaiaren abenduaren 2an. Taldeak mistoak izan ziran, andra eta gizonezko jokalariek osotutakoak. Emaizta 1-2 izan zan.

Arratiako Gurutze Gorriak dituan

Gizartekintza eta Emergentzietako Zerbitzuak mantenduteko ez dala nahikoa jasoten dabezen erakundeen diru laguntzak dino Idoia Zuloaga AGGko teknikariak eta finantziarria lortzeko beste modu batzuk topau behar ditue. "Ez dogu persianea jeitsi gura, preminan daukan jentea dago atzean eta" dino Zuloagak. Horregaitik, ikusita Arratian futbol zaletasun handia dagoala eta Athletic, beti



egoten dala prest ekintza solidarioetarako, partidua antolatu eben diru batzeako.

Telesino bat, kirol materiala eta Beñat Etxebarriak emondako Athleticen kamisetak be zozketatu ziran.

"Euren eskubideak jokoan"

"Euren eskubideak jokoan" lemapean, egoera ekonomikoa dala eta,

datozan Gabonetan seme-alabai jostailuak erosi ezin deuseen familiei emoteko, jostailu barriak jasoko ditu Arratiako Gurutze Gorriak. Jostailuak Igorreko Agirre Lehendakaria kaleko Gurutze Gorri lokalean itxi daitezke. Jostailuok, barriak, ez belikoak eta ez sexistak izan behar dira. "Igaz porrota izan zan. Ez genduan batu ezta Arratiako umeai jostailu bana emoteko be. Familiako jostailu

bat egon zan, ume bi edo gehiagorentzat, jostailu bakarra" azaldu dau Zuloagak penaz.

Ha-ta guzti be, aurten be ipini dabe martxan jostailuak batuteko kanpaina. Izan be, olgetea ume guztien eskubidea da eta jostailuak eskubide hori gauzatzeko birtartekoak dira. Arratian 56 jostailu behar dira aurten, umeen eskubide hau bermatzeko.

LASTO BOTATZE

Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea abenduaren 8an izango da

Erredakzioa

Dimako Udalak antolatuta, abenduaren 8an, 18:00etan, jokatu da Diman Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea frontoian. Zortzi kirolari neurtuko dira, tartean Jose Martin Bustinza "Tubi", txapeldun dimoztarra. Oin arte egindako txapelketa guztiak, hamabi, irabazi dauz Tubik eta hamahirugarrena be lortzean saiatuko da.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko bederatzikirolari neurtuko dira. Juan Carlos Lopez, Beñat Obieta, Aitor Rodriguez, Patxi Ituarte, Ekaitz Salcedo, Mikel Agirre, Andde Arbenoitz eta Anthony Govaert txapela Tubiri, faboritoari kentzean saiatuko dira. Oin arteko txapel guztiak irabazteaz gainera, marka be Tubirena da, 6 metro eta 70 zentimetrotakoa.

Lasto Jasotze Txapelketea

Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketea hilaren 22an izango da Murrikun. Tubik bertan hartuko dau parte.

MENDIA

Joxe Amunarriz eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Lemoatx Trail

Erredakzioa

Joxe Amunarriz hondaribitarak eta Oihana Azkorbebeitia abadiñoztarrak irabazi eben 24 kilometroko lasterketea; 16 kilometrokoan barriz, Alexander Ordeñana eta Garazi Sampedro nagusitu ziran. Zeanuriko Unai Intxaurraga zazpigarren sartu zan helmugan eta lehenengo arratiarra izan zan 24 kilometroko lasterketan. Helmugara heltzean lehenengo hogei sailkatuen artean beste 4 arratiar sartu ziran. Aingeru Artetxe zeanuriztarrak 10. postuan, Asier Egia arteztarrak 11. postuan, Xabi Kantsau lemoaztarrak 16. postuan eta Iker Lekue arantzazutarrak 20. postuan. Hamasei kilometrokoan be beste zeanuriztar bat izan zan lehenengo arratiarra, Jon Intxaurbe. Honek 21. egin eban.

Lasterketea, zemendiaren 18an jokatu zan. Luzean ia 90 kirolarik hartu eben parte eta laburrean ehundik gora. Martxetan be partaidetza handia egon zan.

Sobratuko jateko eta edatekoak Bizkaiko Elikagaien Bankura eroan ziran.

ESKALADEA

Itziar Zabala txapeldun Euskal Mendizale Federazioaren Kirol Eskalada Txapelketan

Erredakzioa

Euskal Mendizale Federazioaren Kirol Eskalada Txapelketea, zemendiaren 23tik 25era jokatu zan Nafarroako Berriobeiti herriko errokdromoan. Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak egozan hiru probetan, azkartasuna, boulder eta zailtasunean, hain zuzen be, irabazi eban txapela.

Txapelketako irabazleak, Itziar Zabala eta Mikel Linazasorok, aukera asko daukie Joko Olimpikoetan parte hartzeako. Izan be, 2020ko Tokioko Joko Olimpikoetan, eskaladeak hiru proba horreek izango ditu eta Euskal Mendizale Federazioak horregaitik

sartu ebazan hirurak txapelketan. Argi dago lesinoak atzean itxi dituala Itziar Zabalak eta forma be-

tean dagoala. Txapelketea gogorra izan zan, baina dimoztarrak proba guztiak irabaztea lortu eban.



MOTORRAK

Hogeta bederatzigarrenez disfrutetan motorzaleak

Irati Urien

Falta barik, urteroko urtekerea antolatatu dabe Iñigo eta Pedro Sagarna zeanuriztarrak, Zeanuriko Enduro Taldearen izenean. Zemendiaren 25ean, domekaz, 63 motorzalek martxan ipini ebezan euren motorrak. Kopuru horregaz errekorra apurtu dabe motordunak; izan be, 60 ibili izan dira gehienez aurtengo urtera arte. Edade desbardinetako hainbat herritatik etorri ziran parte hartzaileak: Zeanuri, Gasteiz, Igorre, Dima, Artea, Etxaguen, Otxandio, Areatza, Zeberio, Matiena, Mañaria, Bilbo, Lemoa eta Zomozatik. Bisita espeziala izan eben gainera, laugarrenez Paris Dakarrean parte

hartuko dauan Fausto Mota piloto gasteiztarrarena. Beronek urtekearegaz segiduteko animau ebezan bertaratu ziranak, beste inon egiten ez dalako eta urtean baten batutea gauza ederra dalako, bere eretziz.

Ibilbidea, ohitura dan lez, Zeanuriko Arregia auzoan hasi zan. Gero, Makaztuitik Altunera, handik Basaguren jatexera armozetan, ostean Oletara, eta segiduan Ubidera, azkenik Zeanurin amaituteko errekorridua. Denporea lagun, eta lagunak ekimenagaz jarraituteko gogotsu, datorren urteko plana berezia izango dalakoan dagoz antolatzaileak, 30 urte, urte asko diralako, baina, esakereak dinon moduan, honeentzako "gustuko aldatzean nekerik ez".



**KONTZERTUEN OSTEAN
ETXERA BUELTATZEKO
AUTOBUSA
LEMOA-DIMA-ZEANURI**

DURANGOKO AZOKA - KONTZERTUAK

NOIZ:
2018ko ABENDUAREN 8an (zapatu gauean)

NON:
LEMOAKO EUSKOTREN ESTAZIÑOAN

ORDUTEGIE:
GOIZEKO 03:00etan / GOIZEKO 05:00etan



Arratiako Udalen Mankomunitatea
Gazterie Arloa
Área de Juventud



Bizkaia
Euzko Legebiltzarra
Asanblada Euzko Legebiltzarra



ALKARRIZKETEAK

Maddi Zabalo: "Heriotzea tabua da, inoz ez dot ulertu zergaitik"

Maddi Zabalo Mateos 16 urteko zeberioztarrak, Arratia Institutuko ikasleak, literatura sari bi irabazi ditu aurten. Basauriko Hitz-Erdiko Kontaketak Lehiaketako, 12 eta 17 urte bitartekoentzako Elkar Saria, eta Hezkuntza Sailaren Urruzunotarrak Gehituz.

Erredakzioa

Mungiako Taketa Bertsolaritza alkarteko Bertso-paper Lehiaketan be hirugarren egin dau.

Hainbat idazleren harrobia dan Arratia Institutura hurreratu da BEGITU Zabaloren lanen barri jakitearren. **Oin batez be prosan idatzi arren, hasi, bertsolaritzan hasi zinan, bertsotan.**

Bai, bertsotan hasi nintzan, lehenengo mailan. Eta hor bertso idatziak egitean konturatu nintzan asko gustetan jatala hori. Bertsoak baino gehiago, poesia. Hamabi bat urtegeaz izan zan hori, Institutuko lehenengo mailan.

Bertso idatziakaz sari pare bat irabazi dodaz. Aurten Mungiako Bertso-paper Lehiaketan hirugarren egin dot eta igaz Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako DBH 3. mailako lehenengo saria jaso neban. Literaturan poesian hasi nintzan lehenengotik, bertsoaren antzekoa dalako.

Igaz Urruzunotarrak Gehituzera aurkeztu nintzan eta ez neban irabazi, baina aurten bai. Eta konturatu naz akaso gehien gustetan jatana prosa dala.

Zein izan da Urruzunotarrak Gehituz Lehiaketara aurkeztu zenduan narrazinoa?

Loreak udazkenean dauka izenburua. Beti iruditu jata heriotzea oso tabua dala, eta inoz ez dot ulertu zergaitik. Narrazino honetan andra zahar-zahar batek senarrari idazten deutso konturatuten dalako hiltzen dagoala. Senarra desagertu egin zan urte asko lehenago bat-batean eta inork ez daki ondo zer pasau zan beragaz. Orduan senarrari idazten deutso eta heriotzeari buruz egiten dau berba. Berak beti ipintzen dauz lorak sarreran, egunen baten gizona etorriko dalakoan, eta lorak, udagoiena eta heriotzea ditu berbagai.

Prosan aurten irabazi dozun beste saria, Hitz-Erdiko Kontaketak Mikroipuin Lehiaketea izan da, ezta? Gazte mailako Elkar Saria.

Lehiaketa horretan, aurreko urtean irabazitako mikroipunaren atzen esaldia izaten da hurrengo deialdiaren gaia. Aurtengoa, "seni-

**Maddi Zabalo.**

derik ez zan agertu bere hiletan" izan da. Ehun berbatan ezin da askorik kontatu, baina nire ipuina idazle bateri buruzkoa zan, familia onekoa, baina familiatik urrundu egiten dana, berak gura dauan bakarra idaztea dalako eta bere aldetik bakarrik ibiltekoa dalako.

Literatura eta bertsolaritzaz gainera, zeintzuk dira zure zaletasunak?

Musikea asko gustetan jata, batez be kantatea eta antzerkia... Eszenalekuetan egiten dan dana gustetan jata, jantzea be bai. Kontzertuetara batez be Bilbora joaten naz, baina Igorreko Gaztetxean be askotan egoten dira kontzertuak. Kuadrilla bat daukat Bilbon eta beste bat Igorren. Eta bertsolaritzaren inguruan be lagun asko egiten dira: lagun oso on bat daukat Arrasaten, beste bat Beasainen... Bizkaiko Txapelketako finalaurrekoa ikusten egon nintzan Berrizen.

Bertsolaritzaz boom bat izan dau atzen urteotan eta futbolaz bezain zabaldua dagoala emoten dau. Eta literatura idatzian gazteen artean?

Bertsolaritza nik uste dot *performance* bat dala, literatura barriz, leidutea. Ni bertso udalekuetan asko ibiltzen naz eta han ikusten da oso ondo zelaz hazi dan. Bizkaikoe-

tan, egon nintzan lehenengo urtean, oin dala bost urte, 30 lagun izan ginan eta igaz 120. Bai, bertsolaritzaz boom handia izan dau.

Literaturan normalena gure edadean oso zalea ez izatea dala esango neuke. Baina nik literaturaaren inguruan lagunak egin dodaz eta inguru batzuetan badago zaletasuna. Ha-ta guzti be, klasean ikusten dodana beste gauza bat da.

Ikasgai moduan zure ustez ondo dago enfokautu literatura? Sortzean dau irakurteko zaletasunik?

Nik baietz esango neuke. Orden kronologikoan ikasten dogu eta, akaso, erdi arokoa izan lei latza irakurteko. Edo ez. Baina niri bai, sortu jata gogoa.

Zeintzuk dira gehien gustetan jatzuzan idazleak?

Nazinoarteko literatura oso gitxi leiduten dot. Itzulpenak eta klasikoak irakurri doguz Institutuan, *Madame Bovary* eta horreek. Niri asko gustetan jata Hegoameriketako errealismo magikoa, Isabel Allende eta.

Euskaldunen artean, gatxa da bat aukeratutea, baina adibidez Miren Agur Meabe asko gustetan jata. Eider Rodriguez be bai; ze idazten dauana da oso gordina eta badauka bere puntua, ia-ia bildurra eta dana emoten dau momentu batzuetan. Baita Uxue Alberdi be.

JANTZEA

Euskal Herritik kanpoko jantza taldeak konbidatu ditu Arantzartek Igorrera**La Sidrina jantza taldea.****Erredakzioa**

Urtero Gabon sasoi hurreraten danean lez, Arantzarte jantza taldeak jantza saioa eskainiko dau, baina aurten Euskal Herritik kanpoko hiru jantza talde be egongo dira Igorren, hilaren 8an eta 9an euren jantza tradizionalak erakusten.

Zapatuan, hilak 8, 18:30ean, Arantzarte eta Burgosko Tierra Noble jantza taldea izango dira Kultur Etxean. Ondoren, 20:00etan, triki-poteoa egongo da herrian zehar. Hurrengo egunean, 13:30ean, Arantzarteko umeak eta Errioxako Grupo de danzas de Briones, Asturiaseko La Sidrina eta Burgosko Tierra Noble taldekoak egingo dabe jantzan.

Taldeak

Tierra Noble jantza taldea, Burgosko Las Quintanillas herrian sortu zan. Taldeak bederatzi urte dauka-

zan arren, Burgos probintzian zehar nahiz iberiar peninsulako beste herri askotan ibili izan dira jantzan eta kantuan. Taldekoak kantuan be egiten dabe eta CD bi daukiez grabauta.

Gurera etorriko dan bigarren taldea Errioxatik dator, bere izenak dinoan moduan Briones herri-ritik eta euren inguruko jantzak erakutsiko dabez, Arcos, Mansilla eta Brioneseko jotea besteak beste. Mutil eta neska alkarregaz jantzan egin arren, nesken taldea 1992an sortu zan eta aurreko urtean hogeitabosgarren urteurrena ospatu eban.

Asturiaseko La Sidrina taldea, Lugones herritik datorren jantza taldea da. Euren printzipioetako bat aurrekoak egiten eben antzera, jantzan eta kantuan ondo pasetea da, orduan erabilten ziran erropak eta jantzak errespetauz. Talde hau hainbat herrialdetatik ibili da euren ohiturak erakusten.

JAIALDIA

Bediako Gabonetako jai hilaren 14an**Erredakzioa**

Gabon sasoi ekitaldi gehienak hilaren bigarren hamabostaldian izango diran arren, Bediak, Gabonetako jai hilaren 14an egingo dau.

Arrasti osoan, euskal musikeak girotuko dau herria eta taloak jateko aukerea egongo da. Ekitaldia frontoian izango da 17:00etatik aurrera. Parte hartzeako, janari pakete bat etxetik eroan behar da edo euro bi pagau. Batutako jantzia Arratiako Elikagaien Bankurako

izango da eta batutako dirua Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako Zierbenako proiekturako.

Gabonetako postal eta eskularen erakusketea egongo da eta taloak egiteko tailerra. 18:00etan, pala eta eskupelota partiduak, 18:45ean, gimnasia erritmiko erakustaldia eta 19:15ean, Bediako Korru-dantza eta umeen euskal jantza taldeen erakustaldiak.



JAIALDIA

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak jaialdia antolatu eban Zeanurin turismoa bultzatzeko

Erredakzioa

Jaialdia zemendiaren 24an izan zan eta mitologia euki eban gaitzat. Musikea, antzerkia, euskal mitologiako personajeak kalejireia, otzaren zozketea eta karaokeagaz disfrutau eben herrikoak eta Zeanurira hurreratu ziranak. Jaialdiaren helburua "Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak Gorbeia Natural Festival izeneko jaialdia bultzatu dau. Eguerdian Zeanuriko Abesbatza, txistulariak eta trikitilariak animau eben herria eta Gorbeia inguruko produktak dastatzeko aukerea egon zan.

"Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak Gorbeia Natural Festival izeneko jaialdia bultzatu dau. Eguerdian Zeanuriko Abesbatza, txistulariak eta trikitilariak animau eben herria eta Gorbeia inguruko produktak dastatzeko aukerea egon zan.

Arrastia jantzarako eta euskal mitologiarako izan zan. Hasteko, umeentzako antzerkia egon zan

plazan eta ostean, kalejireia personaje mitologikoakaz. Jardunaldia Oier Aslaren kontzertu parte-hartzaile batez amaitu zan.

Umeentzako antzerki ikuskizunera joan ziranai edo Zeanuriko tabernetan edairen bat hartu ebenai txartel bat emon eutseen eta horren truke pintxo bat jan ahal izan eben *foodtruck*ean. Eguzkilore produktuen hiru otzara zozketatu ziran.

Natura eta tradizioa

Gorbeia Landa Garapenerako alkarteen arabera, "natura eta tradizioa dira eskualdea ondoen definitzen daberen berbak; horregaitik, Gorbeia bisitetan daberen pertsonen motibazio nagusia bertako naturaz gozatzea eta ohiturak ezetutea izaten da. Eta Bizkaia apustu handia egin dau eragin ekonomiko handiko ekitaldi eta hitzordu kulturalen alde eta, kasu askotan, horreek benetako erakargari turistiko bihurtu dira". Sinbiosi horretatik sortu da Gorbeia Natural Festival jaialdia.



ANTZEZLANA

Ghero antzezlan, euskerearen biziraupenaren gaineko hausnarketeta

Erredakzioa

Euskaltzaindiaren mendeurrena dala eta, Tartean Teatroak euskerearen gaineko antzezlan egiteko enkargua jaso eban. Tartean Teatra eta Euskaltzaindiaren *Ghero*. *Azken euskalduna* Igorreko Lasarte Aretoan ikusteko aukerea egongo da abenduaren 15ean, iluntzeko 20:00etan.

Gidoia Patxo Telleriak idatzi dau eta Jokin Oregiren zuzendaritzapean, Mikel Martinez, Patxo Telleria, Mikel Losada, Olatz Garboa eta Ane Pikaza aktoreak, euskerearen gaineko hausnarketeta eta omenaldia dan kutsu futurista daukan antzezlan hau taularatuko dabe.

Sinopsia

Urruneko galaxia baten, 3.000 urtean, ospitale baten atzen euskalduna hiltera doa. Eta beragaz batera, euskerea, milaka urte iraun dauan hizkuntza. Gaixoaren ondoan mediku gazte bat dago, agur honen lekukoa izango dana. Gaixoaren eta medikuaren arteko alkatze horrek hedatze narratibo eta emozionala sortzean dau, etorkizun eta iraganera joan-etorri etenbakoan. Hizkuntz preindoeuropear txiki baten biziraupenaren mirariagazko harridurea, miresmena, nahasmena, konplizidada... Bederatzi istorio, bederatzi antzerki poema, euskerearen planetaren inguruan orbitetan. Antzezlan emozionala, origi-



nala, dibertigarria, harrigarria eta estetikeari jagokonean, ausarta.

ZINEKLUBA

The Square film suediarra Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Abenduaren 13an, 20:00etan, Igorreko Zineklubak Ruben Östlund zuzendariaren *The Square* (2017) filma ekarriko dau Lasarte Aretoan. *The Square* komedia deserrosoa da kolokan ipinten dituan tabu modernoak. Satira sozial honek

sei sailetan irabazi ebazan Zinema Europarraren Sarietan, eta Urrezko Palmondoa Cannes-eko Zinemaldian.

Sinopsia

Christian arte garaikideari eskainitako museo arrakastatsu bateko konserbatzailea da. Oin, ikusleak

altruismora eta ardura sozialera bultzatu dituan instalazio bat prestatzen dabil. Baina erakusketeta sustatzeko kanpainak ustebako erreakzioak sortu ditu publikoarengan. Gainera, Christianeri eskuko telefonoa lapurtu deusie eta berreskuratzen ahaleginduko da.

DUNBA

Pinuak gaixorik

Zeberioiko ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak

Guk, Zeberioiko 5. eta 6. mailako ikasleak, gai hau aukeratu dogu gai garrantzitsua dalako.

Pinua

Pinuaren izena *radiata* edo *insignis* da. Jatorriz pinu hau Mexiko eta Kaliforniatik ekarri dago. Baina oso arin hazten danez bere erabilera mundu osotik zabaldu da. Tamalez zuzatuzagaz batera onddoa be zabaldu da munduan. Landatzeko pinu txikiak 20cm inguru daukie eta handiak 25cm. Landatzean 2,5m-ko distantzia egon behar dau euren artean, eta lurtean 25x25cm-ko zuloa egin behar da. Landatu eta gero lehenengo urteko udabarrian eta udan garbiketari egin behar dira.

Egun 65.000 hektarea inguru *insignis* zuzatuz estalita daukagu Bizkaia.

Gaixotasuna

Badakizuen urte honeetan onddo batzuk pinuak gaixotu dabez.

Onddoen izenak *boletus pinicola*, *michosfarella dearnessi*, *michosfarella pini* eta *lecanosticta acicola* dira. Honeek "xiongola marroia" deritxan gaixotasuna eragiten dabe hostoak jausi arazoz.

Batez be Gipuzkoan eta Bizkaian jotzen dau. Gipuzkoan %40 bat dago gaixotuta. Alicio pinuak be jasaten dau eragina. Oin 16.000 hektarea gaixotuta dagoz.

Gaixotasuna 1944an aurkitu zan baina gaur egun gogorrago jotzen dau. Onddo honek 40 urte da-roez Euskal Herrian.



Ondorioak

Gaixotasuna kontrolatzen ez bada-be, Euskal mendiak 1930. urtean egozan legez egongo dira, hau da zuzatuz gixigaz. Gainera basoak pinu barik geratu daitezke 1904. urtean Ameriketara jazo zan modura.

Beste alde batetik, pinu barik lur-raren babes geruza galduko litzateke. Oxigenoa be galduko leuke, eta bero handiagoa egongo zan.

25 urte baino gixiagoko pinuak daukiezan jaubeentzat, 1,4 milioe eurotako laguntza eskaini dau Bizkaiko Aldundiak.

9000 pertsonen lana kolokan egongo litzateke.

Beste zuzatuz mota batzuk landatuko lekiez eta paisajea aldatuko litzateke.

Konponbidea

Zientzialariak pinuak osatzeko tra-



tamendurik ez dabe aurkitu, baina pinu gazteak osatzeko kupre oxidatzea erabilte pentasau dabe.

Oingo konponbide bakarra pinua kendu eta birlandatzea izan da, baina ez oin arte izan dogun pinua, beste herrialde batzuetako pinuak baino. Adibidez: Japoniar zedroa, Taeda pinua, Itsas pinua...

Nafarroako Gobernua be proiektu baten sartuta dago pinuen gaixotasuna aztertze eta tratamendu bat aurkitzeko.

Baina 2019ko udabarri edo udagoienerako arazoa konponduta egon leikela uste dabe. Holan espero dogu geuk be.

AGENDEA

ABENDUAK 3 ARANTZAZU

17:30ean, *Ispiluari begira* tailerra, umeak eta helduak hizkuntza ohituren inguruan hausnartzeko eta aldaketan eragiteko Kultur Gunean; 18:30ean, txokolata.

AREATZA

18:00etan, Guraso Elkarreak txokolata bananduko dau, Euskaraldiaren argazkia eta mezuaren irakurketea plazan.

ARTEA

Jubiladuen bazkarian izena emoteko epea hilaren 10era arte. 15 euro.

Euskerearen aldeko ekimenak eskolan eta 18:30ean, txokolata plazan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea; 18:00etan, Leloentzako Irudien Lehiaketako eta Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea; 19:00etan Euskaraldiaren amaiera ekitaldia frontoian.

DIMA

18:00etan, Euskaraldiaren amaierako ekitaldia. Mezuen irakurketea, zunba, argazkia, gaztain erreke eta zozketea. Frontoi txikian.

IGORRE

16:30ean, kalejire eskolatik Kultur Etxera, Zuztertxu, Belarriprest eta Ahobizigaz; 19:00etan, ekitaldia: bertsolariak, Luis Iruarizaga Abesbatza, bideo emonaldia, *sketchak*, jantza aktiboko gazteak eta kopaua.

LEMOA

Marrakzi Lehiaketako erakusketea. Hilaren 12ra arte. Ludotekan.

18:30ean, poteo musikatu Kresala tabernatik hasita; 19:30ean, Euskaraldiari amaierara emoteko ekitaldia: Udalak ariketeari jarraipena emoteko dituen bitartekoak azaldu, Berbalagun aurkezpena eta Larregi taldearen kontzertu akustikoa. Jubiladuen tabernan.

ZEANURI

Gorbeia jubiladuen alkarteak antolatutako karta joko txapelketetan parte hartzeako

izena emoteko atzen eguna. Jubiladuen tabernan.

18:30ean, Euskaraldiaren amaierako ekitaldia: eboluzinoa, phtocalla eta Maddalen Arzallusen agurra. Ondoren talo jana. Kultur Etxean.

ZEBERIO

Umeak eta jubiladuak taloak eskolan. 15:00etan, Juan Manuel Etxebarriaren ipuin kontaketea.

ABENDUAK 4 AREATZA

18:00etan, Areatzako Eleiz portalean (Igorren be geldituko da autobusa). Bilboko Euskalduna Jauregian, Oinkari Dantza Taldeak, Bilboko Txistulari Bandak eta Aitor Furundarenak prestatutako *Esku-burdinak* ikuskizuna ikusteko urtekera.

ARTEA

19:00etan, aurrekontuetako batzarra, Arteaztarron biltzarra. Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, sukaldaritza ikastaroa, jardunaldi irekia. Eskolako sukaldean.



Bertako natura arrotza Juan Sagastizabalen erakusketea Igorren

Abenduaren 14tik, 2019ko urtailaren 18ra arte, Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa gelan Juan Sagastizabalen koadruak egongo dira ikusgai.

Holan aurkezten dau Bernardo Atxagak Sagastizabalen erakusketea. "Juan Sagastizabalen koadru artean paseoan, Juanen koadruak begira, lehen burutazinoa da mundu begetal ikaragarri indartsu baten aurrean gagozala, amets on eta gaitoen eremu dirala hareek, literatura fantastikoaren geografia bat. Gerturatu, baina, eta hor insekto bat, edo sugea, edo hildako sagua... eta bat-batean leihoa, koadrua, itxuraldatu egiten da: mundu begetal horretan bizitza dago, eta heriotzea; begiak eta antenak dagoz erne, taupada barik barriz, saguaren bihotz txikia. Mobimentuaren konzientzia horrek barriro pentsetara behartzen gaitu. Geure planeta da koadruetakoak, ez besteren bat; ez bada geure bizitza, bai behintzat albokoa".

ABENDUAK 5 DIMA

18:00etan, Bea Sever Chrysalis Elkarteko kidearen berbaldia *Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak*. Ondoren solasaldia. Abaroa Aretan.

ZEANURI

17:00etan, Gorbeia Jubilatua eta Pensionisten Alkarteak antolatua, Tute eta Briska Txapelketak. Ondoren sari banaketea eta kopaua Jubiladuen tabernan.

ABENDUAK 6 LEMOA

Hilaren 9ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen urtekera Pirinioetara.

ABENDUAK 8 DIMA

18:00etan, Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea frontoian.

IGORRE

18:30ean, Arantzate eta Burgosko Tierra Noble jantza taldea Kultur Etxean; 20:00etan, triki-poteoa. 22:00etan, zinea, *Infiltrado en el KKKlan*.

ABENDUAK 9 AREATZA

Lamino Mendi Taldeak Turroi Eguna. Sabigain (954 m.).

IGORRE

10:00etatik aurrera, Igorreko Ziklo-krosa.

13:30ean, Arantzateko umeak, Errioxako Grupo de danzas de Briones, Asturiaseko La Sidrina eta Burgosko Tierra Noble jantza taldeak Kultur Etxean.

17:00etan, zinea *Condorito*; 19:30ean, *Infiltrado en el KKKlan* Lasarte Aretan.

ABENDUAK 10 LEMOA

19:30ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dala-eta, Udalak eta Mundubat-ek antolatuta, *Berta Cáceres guardiana de los ríos* dokumentala eta Noemí Pérez-en solasaldia.

ABENDUAK 11 LEMOA

19:30ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dala-eta, Udalak eta Mundubat-ek antolatuta, *Las mujeres decididas* dokumentala eta Higinia Pérez dokumentaleko zuzendariagaz solasaldia.

ABENDUAK 12 BEDIA

19:00etan, Erregeen Kabalgatea. Batzarra eskoletan.

LEMOA

17:15etik 18:45era eta 18:45etik 20:15era, *Informatika* ikastaroa, jardunaldi irekia. Liburutegiko informatika gelan.

18:30ean, Plan Generala: "Lemoa Herri Anitza" emaitzen aurkezpena Elizondo Kulturgunean.

ABENDUAK 13 IGORRE

20:00etan, zinekluba, *The Square* (Ruben Östlund, 2017) Lasarte Aretan.

ABENDUAK 14 ARTEA

17:00etan, Andran Jabekuntza Eskolako *Nola egiten gaituzten andrazko* ikastaroa Kattalin Miner-en eskutik. Andran Gelan.

17:30ean, Arteko Jubiladuen alkarteak antolatuta, memoria tailerra Kultur Etxean.

BEDIA

17:00etan, Gabonetako jaiak.

LEMOA

15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era, *Eskulan* ikastaroa, jardunaldi irekiak. Elizondo

Kulturgunean.

ABENDUAK 15 ARTEA

10:00etan, Andran Jabekuntza Eskolako *Nola egiten gaituzten andrazko* ikastaroa Andran Gelan.

14:00etan, jubiladuen bazkaria frontoian. Ostein erromeria Jokaldiko Jantxugaz.

IGORRE

20:00etan, Tarteant Teatroa eta Euskaltzaindiaren *Ghero. Azken euskalduna* antzezlan Lasarte Aretan.

DIMA

Serigrafia topaketak. 11:00etan, azokea eta tailerrak: seri zeramikan, *stencil*, fotopolimeroa eta seri egurrean frontoi txikian; 15:00etan, bazkaria (bazkaria norberak eroan) eta berbaldia Abaroa Aretan, *Danontzako diseinatzen diseinu inklusiboak*; 18:15ean, zunba parte-hartzailea plazan; 19:00etan seri-paseo-musikatua.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, Turroi Eguna. Siskino-Ubide.

ZEANURI

09:30ean, Gorbeia Jubilatuen eta Pensionisten Alkarteak antolatuta Turroi Eguna. Mendi ibilaldia. Ibilbidea: plazea-Olaburu-Arrikibar-Altzagobi-Arbina-Palomares-Urtegia eta plazea. Ondoren kopaua partaideentzat.

ABENDUAK 16 BEDIA

Udalaren laguntzaz Gangurenak antolatuta, Turroi Eguna. Galdakao-Bekea-Labea-Burtoitza-Galdakao.

DIMA

09:00etatik aurrera, Dima Trail.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, goizeko urtekera Arratiatik.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekera. Jaizkibel GR121.

ABENDUAK 17 IGORRE

10:00etan, Beharbideko saioa. Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonon balezko hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baserri dotore eta polit baten alokairua konpartidutako pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortua, tenis zelaia eta bainua hartzeak aukera. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ZAINTZA LANA

Laguntzailea behar dogu edadeko andra bateri etxeko lanak eta konpainia egiteko. Interesdunak deitu 657 777 542 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tarteant Teatroaren *Ghero* antzezlanerako.

Argiñe Larrea (Dima)
Amaia Azurmendi (Igorre)



2 Bizkaiko Bertsozale Elkarrekin emondako bi sarrera Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Bilboko finalerako.

Jon Ordeñana (Areatza)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Gaixorik gagozanean hartzean dogu.
- 2.- Probetxua. Bokala.
- 3.- Berrogeta hamar erromatar. Tantaloa. Emea ez dana.
- 4.- Arbuiozko interjekzioa. Samurra, biguna.
- 5.- Europako hizkuntza bat.
- 6.- Tolestura. Ospa, alde.
- 7.- Musika nota. Iridioa. Azken letrea.
- 8.- Bat erromatar. Bukaera.
- 9.- Txantxetan.

GOITIK BEHERA

- 1.- Bolari.
- 2.- Zintzo. Jatun. Boroa.
- 3.- Taut. Birritan, umeen berbetan, txakur. Argona.
- 4.- Garaituko.
- 5.- Birritan, korotza. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. Memoria, informatikan.
- 6.- Bokala. Lege. Barioa.
- 7.- Ihardetsi.



Topau Goenkale telesailaren zazpi antzezleren abizenak.

O	R	E	P	E	R	E	S	A	L
D	I	E	R	I	A	Z	O	P	I
E	A	M	U	S	K	I	Z	E	Z
R	Z	A	P	E	Z	A	I	G	O
I	T	U	Ñ	O	R	E	Z	O	B
T	X	E	R	I	S	O	B	A	R
L	A	R	G	I	A	S	O	N	A
O	R	G	O	L	G	E	K	E	U
D	A	N	I	A	N	U	K	R	A
O	N	G	E	R	A	T	X	U	L
A	B	I	S	O	R	A	M	R	I
S	U	B	O	L	U	E	R	E	T
A	R	R	I	A	K	O	E	P	O
D	U	G	O	E	N	A	G	A	L
I	K	U	L	A	B	E	R	A	N

AKIMIKO

Iman Olatu



umeen moda
SEM
0-10
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

begitu
erraita etxeko abentura

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 090 487830 • 090 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3- 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejateca@hotmail.com

Pinturas Artasia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



Areatzako Bainuetxea



www.hotelbalnearioareatza.com

Oparia topetan Olentzero egunerako?

Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705